

Are we free?: Psychology and free will

JOHN BAER, JAMES C. KAUFMAN & ROY F. BAUMEISTER (arg.)

New York: Oxford University Press, 2008, 356 or.*

Liburua osatzen duten 17 lanek, gehi argitaratzaileek idatzia den atariko kapituluak, aukeramena dute aztergai. Aukeramena, hau da, aukeratzeko ahalmena, inori aitortzekotan gizakiari aitortzen dioguna. Beste askorentzat bezala, edo, hobeki esateko, beste gehientzat bezala, “aukeramenaren jabe” zen gizakia Koldo Mitxelenarentzat (ikus *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 299. or.). Liburu honen sarrera kapituluaren lehenbiziko perpausetan esaten zaigunez ere, jendeak gehiengan aukeramenaren jabe balitz bezala dihardu, eta ez dauka bere burua, ezta besteak ere, automatizatzen. Baina, jendeak uste duen hori ez ote da irudipen hutsa? Eta irudipen hutsa baino zer-bait gehiago bada, zer-nolako aukeramena du jendeak? Eta aukeramenaren eragina jokabidean, eraginik baldin badu noski, nolakoa izan daiteke? Bestalde, zientziak zer, ba ote dauka parte-hartzerik auzi honetan, ikerketak eginez eta filosofiak argitu ez duena beste bide batetik argitzen saiatuz? Horiek dira liburuan erantzun nahi diren galderetako batzuk.

Luzaroko mendeetan filosofoen arloan izan dira aukeramenaren inguruko eztabaidak: aukeramena ala determinismoa, nola definitu bata eta nola bestea, bateragarriak diren ala bateraezinak (konpatibilismoa versus inkonpatibilismoa) eta abar. Gauzak, ordea, aldatzen hasi ziren Benjamin Libet neurofisiologoaren esperimendu berri jakin zenean. Liburuan zehar maiz aipatzen dira esperimendu horiek eta aski luze hitz egiten da horietaz 207-210 eta 333-340 orrialdeetan; lan honetan berean ere, bestalde, heldu beharko diegu aurrerago, liburuan parte hartzen duten zenbait autorek horietaz duten iritzia azaltzeko. Horregatik, esperimendu horien zer-nolakoak azalduko ditut oraintxe bertan.

Subjektuen egitekoa mugimendu erraz bat egitea zen: hatz bat, edo esku-muturra, tolestea. Hori egiten zuten gogoak ematen zien bakoitzean. Baina Libetek jakin nahi zuen zer gertatzen zen subjektuen garunean mugimendua gauzatzen hasi baino lehen. Subjektuen buruko larruazalean elektrodoak ja-

* [Liburu-kritika honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2011n: *Gogoia* 11 (1): 87-94.]

rri eta ikusterik izan zuen 550 bat ms lehenago prestasun-potentziala deritzan jarduera elektriko bat hasten zela garunean. Libeten jakin-mina, ordea, ez zen hor amaitzen. Subjektua noiz hasten zen mugimendua abiatzeko desiraren jakitun izaten edo horren kontzientzia izaten: hori zen egiatan ikusi nahi zuena. Subjektuak kronometro baten aurrean jartzen zituen horretarako, eta eskatzen zien esateko zein puntutan zegoen kronometroaren orratza mugimendua hasteko gogo kontzientea sentitu zutenean. Horrelako esperimentuetan lortu zen emaitza honako hau izan zen: parte-hartzaileen arabera, mugimendua gauzatzeko erabaki kontzientea hartzen zen unea mugimendua bera hasi baino 200 bat ms lehenago gertatzen zen. Beraz, prestasun-potentziala hasi eta handik 350 bat milisegundora.

Berehala dator galdera: zer esan nahi zuen horrek? Garunak bere kabuz hartu zuela erabakia, jendea horretaz ohartu baino lehenago? Horrela irakurri izan dituzte espezialista askok Libeten esperimentuak; ez, ordea, Libetek berak (ikus, bestela, Libet 1999). Neurozientzialari askok honela argudiatzen dute: gure ekintzak garunean hasten dira eta garuna kausa-sistema determinista da, beraz aukeramenaren ezinezkoa da. Filosofoen, edo hobekiago esan filosofo batzuen, erantzuna da hor kategoria-nahaste bat dagoela: askatasuna buruko arrazoen eremuan bilatu behar dela, eta ez kausa fisikoen eremuan. Neurozientzialariek, noski, ez dute onartzen filosofoen argudioa, zeren, esaten dute, arrazoiak prozesu neurofisiologiko deterministen bidez bereizten baitira.

Eta psikologian, zer? Nola daude gauzak aukeramenaren auzia dela eta? Hori baita azpтитulua *Psychology and free will* duen liburuan erakutsi nahi dena. Azkenaldi honetan, bada aurreko paragrafoan aipatu dugun nahaspilan sartu nahi izan duen psikologorik, Daniel M. Wegner, adibidez, liburuko 11. kapituluaren egilea eta 2002an *The illusion of conscious will* izeneko liburua argitara eman zuena. Dena dela, badirudi aukeramenaren auziak ez dituela gehiegi kezkatu psikologoak. Roediger, Goode eta Zorombek 10. kapituluaren hasieran esaten dutenez, APA edo American Psychological Association delakoak 2000. urtean atera zuen zortzi liburukiko *Encyclopedia of Psychology* ez omen du sarrerarik *free will* (aukeramenaren) kontzeptuarentzat, ehunka asko sarrera dituen arren, eta aurkibidean ere ez omen da ageri kontzeptu hori, seinale zortzi liburukietan ez dela behin ere aipatzen; beste iturri garrantzitsu batzuk ere aztertu dituzte autore horiek eta emaitza beti antzekoa izan omen da.¹ Hala ere, *Are we free?* liburua argitaratzaileek 1. kapitulan diotenez, azkenaldi honetan psikologo sail bat saiatu omen da aukeramenaren inguruko korapilo batzuk askatzen. Liburu hau horren frogagarri da, bertan parte hartzen duten hogeita lau autoreetatik hiru ez beste guztiak

¹ Nik, neure aldetik, 2007ko *Thesaurus of psychological index terms*en begiratu dut ea sarrerarik ematen zaion hor *free will* kontzeptuari eta, bai, ematen zaio, baina ez letra lodian beste kontzeptuei bezala, eta berehala erantzen zaio ohar hau: "Use volition".

psikologoak baitira. Liburuaren akuilatzaileek helburu bikoitza izan dute: batetik, azkenaldiko lan esperimental eta teorikoa, aukeramenarekin zerikusi zuzena duena, aurkeztea, eta, bestetik, erakustea nola ekiten dieten psikologoek aspalditik aukeramenarekin lotzen diren arazo filosofikoei: determinismoaren eta aukeramenaren arteko erlazioari, adibidez.

Aukerarena ala determinismoa? Hori da galdera nagusia hemen: *Are we free?* dio liburuaren izenburuak. Hau da, libreak gara aukerak egiterakoan eta erabakiak hartzerakoan? Zer esan dezake horretaz psikologiak? Eskain al dezake bataren nahiz bestearen aldeko edo kontrako froga enpirikorik? Aukeramenaren eta determinismoaren arazoari dagokionez, liburuan elkarren ondoan egoki jarrita daude garunaren lana determinista dela eta aukerarena irudipena dela dioen ikuspegia, natura-zientzietan oro har eta biologia eboluzionistan eta neurozientzian bereziki nagusi dena eta hemen Dennett filosofoak (12. kap.) eta Wegner (11. kap.), Bargh (7. kap.) eta Pinker (17. kap.) psikologoek defendatzen dutena, eta aurreko horiekin bat ez datozenen ikuspegiak. Azken sail horretan sartzen direnek onartzen diote nolabaiteko aukerarena gizakiari, nahiz ez duten hori denek berdin ulertzen.

Nagusitatzat jotzen den ikuspegi edo joerako ordezkari moduan aurkeztu ditugun lau autore horietatik, Dennett eta Pinkerren² lanei buruz ez dugu hau besterik esango: argi utzi nahi izan dutela, batez ere Pinkerrek, aukerarena ukatzeak ez duela kentzen legearen aurreko erantzukizuna. Arreta gehixeago merezi dute beste biek, aukeramenaren kontrako froga enpirikoak eskaintzeko moduan daudela uste dutenez. Horien lanen izenburuak ere oso adierazgarriak dira: “Free will is un-natural” Barghen lanarena, eta “Self is magic” Wegnerren lanarena. Barghek esperimentu eta ikerketa sail luzea eskaintzen du, beraren ustez eragin inkontzienteen nagusitasuna frogatzen dutenak; bestela esateko, gure egiteen kausak inkontzientek izango lirarteke eta ez legoke berak “etereoa” (147. or.) deitzen duen aukeramenaren beharrik. Esperimentuetako batzuk berak eginak dira, berak bere lankideekin; ez denak, ordea, beste batzuenak ere aintzat hartzen baititu, gorago ikusi ditugun Libetenak, adibidez, asmo edo gogo kontzientearen uneari buruzkoak, edo ondoren aipatuko ditugun Wegnerrenak. Barghen iritzian, esperimentu eta ikerketa horiek agerian ipini dituzte hainbat fenomeno nekez esplikatu zitezkeenak oinarritzat aukeratze kontzientea eta aukerarena hartuz gero eta orain, nagusitasuna indar inkontzienteei aitortuta, ulergarri direnak. Hona fenomeno horietako batzuk: jarrera automatikoak, hau da, aurkitzen ditugun objektu berriak bat-batean nahi gabe eta inkontzienteki ontzat edo txartzat hartzea; ebaluazio horrek berehala dakarren joera, ontzat jotzen dena hurbiltzeko eta txartzat jotzen dena saihesteko; besteen jokabidea imi-

² Hemen ematen den Pinkerren lana ez da liburu honetarako idatzia izan. Autore horrek 2002an plazaratutako *The blank slate* liburuko hamargarren kapitulua da.

tatzeko joera inkontzientea; helburu jakin bat lortzen ahalegintzea, ahalegi-naren zergatikoa azaltzeko gauza izan gabe, helburua amua botata kanpotik eragina izan delako; eboluzioaren historian hizkuntzaz azkar eta bat-batean jabetzea; aldi berean prozesatu behar diren informazioak ugari direnean inkontzienteki hartutako erabakiak hobeak izatea ohartuki hartuak baino, eta abar. Bere lanean berrikusi dituen frogak kontuan dituela, Barghek ondorioz-tatzen du jokabidea nondik sortzen den azaltzeko ez dagoela aukeramenaren beharrik; egiazkoa dela oso aukeramenaren dugulako sentimendua, baina senti-mendu bizi hori irudipena dela.

Wegnerren esperimenduei dagokienez, horien xedea izan da bereiztea parte-hartzaileen uste edo sentimendua, ekintzaren egile direlako ustea, eta egiatan egile izatea. Jendeak, esperimendu horietan, kontrol-irudipena du, egoera berak kontrolatzen duelako irudipena alegia. Esperimendu batean, adibidez, parte-hartzaileek mediku sorginarena egin behar zuten osasunean faktore psikosomatikoek duten eragina aztertzeko omen zen estudio batean: budu madarikazio bat egin behar zuten panpina batean orratzak sartuz, bik-timarena egiten zuen, eta ikertzailearekin elkar hartuta zegoen, beste par-te-hartzaile baten aurrean. Honek, ondoren, buruko mina jarri zitzaiolako itxurak egiten zituen. Onartuko ote zuten parte-hartzaileek inolako erantzuz-kizunik biktimaren buruko minean? Baietz dio Wegnerrek, askok —ez de-nek, nonbait, hala ere— onartu omen zuten berek egindakoak (panpinari orratzak sartzeak) eragin zuela buruko mina. Beste hainbat esperimendu ere aipatzen ditu autoreak, aurreko hori bezala “pentsamendu magikoari” buruz-koak deitzen dituenak. Denek erakusten dute, beraren ustez, oso erraza dela kontrol-irudipena sorraraztea. Hortik ondorioztatzen du borondate edo nahi kontzientearen ohiko ustea irudipena dela eta, nahiz jendeak uste izan bere jokabide asko asmo kontzienteez gidatzen dituztela, bai jokabidea bai as-moak egiatan buruko beste prozesu inkontziente batzuen emaitza direla. Bes-talde, jendea nola iristen den nahi kontzientea sentitzera azaltzeko asmotan, teoria bat ere eratu du Wegnerrek, berak *buru-kausalitate itxurazkoaren* teoria deitu duena (ingelesez, theory of *apparent mental causation*), eta Humeren fi-losofian oinarritua dagoena. Teoria horren arabera, buru-kausalitate itxuraz-koaren pertzepzioa izateko, pensamenduak bat etorri behar du ekintzarekin, ekintza baino lehenago gertatu behar du eta kanpoan utzi behar ditu beste kausa posible guztiak. Wegnerrek uste osoa du aukeramenari buruzko bere ikuspegian. Berak ez duen larritasuna sumatzen du filosofian eta psikologian aukeramenaren eta determinismoaren auzia dela eta. Psikologiak, zehaz-kiago, borrokan segitzen omen du enigma horrekin, liburuan berarekin “bat ez datozen ahotsen korduak” (243. or.) adierazten duenez.

Bueno, bada, ikus dezagun zer dioten liburu honetako beste lankideetako batzuek Barghek eta Wegnerrek ematen dituzten frogei buruz. Froga eztabai-daezinak ote dira, ala interpretazio hutsak? Aurrena, Roy Baumeister (5. kap.) psikologo sozialaren ikuspegia ekarriko dugu hona. Hasteko, honako hau az-

pimarratzen du: aukeramena badela esateko ez dela beharrezkoa giza ekintza guztiak libreak izatea. Bat dator esaten dutenekin giza jarduerak neurri handi batean automatikoa edo determinatua dirudiela. Hala ere, jardueraren proportzio bat libreki aukeratua bada, badago aukeramenaren existentzia defendatzerik. Ez omen dio onik egiten, hala dio berak, esaten diotenean zientzialaria den aldetik debekatua daukala aukeramenaren sinestea. Berak psikologian eta neurozientzian oso zabaldua ikusten duen aukeramenaren kontrako jarreraren oinarrian gorago ikusi ditugun Libet, Bargh eta Wegnerren esperimenduak eta horien tankerakoak omen daude, eta esperimendu horiek erakusten duten gauza bakarra omen da aukeramenak ez duela esku hartzen ekintza hutsal batzuetan, hatza edo eskumuturra tolesteko ekintzan adibidez. Libeten lana kritikagarria ikusten du metodologiaren aldetik eta gehiegizkotzat jotzen du eman zaion garrantzia. Hala ere, aintzat hartzen du Libeten “free won’t” kontzeptuak adierazi nahi duena, hau da, nahi kontzienteak izango lukeela eragozterik inkontzienteki hasitako ekintza; bestela esateko, ekintzari betoa jartzeko ahala izango lukeela. Horren haritik, balegoke beharbada esaterik aukeramenak indargabetu egiten duela erantzun automatikoa. Dena dela, esanguratsutzat dauka Baumeisterrek honako hau: aukeramenaren kontrako literaturak esanahia epe laburrera baizik ez duten ekintza hutsalekiko esperimenduetan oinarritzen ditu bere frogak, baina deus gutxi esaten du epe luzerakoak eta estrategikoagoak diren erabakien izaeraz. Azkenik, Baumeister beraren ikerketek, batez ere *ego depletion*³ deitu duenari buruzkoek, iradokitzen dute gizakiak duen ekintza kontrolatzeko modu berri eta libreagoa biologikoki garestia dela eta beharbada horrek esplikatuko lukeela zergatik ez den aukeramena noizbehinka baizik erabiltzen.

Hemen ezinbestean kontuan hartu behar dugun liburuko beste lankide bat Albert Bandura da (6. kap.). Psikologo honi emankorragea iruditzen zaio gizakiok gertaeretan eragina izateko dugun gaitasuna aztertzea, arreta aukeramenaren eta determinismoaren auzian jartzea baino. Bandurak aukeramenaren arazoa birformulatu egiten du gizakia agentea delako ideia bultzatuz. Berak beste lan batean dioenez (2001: 2), “agente izatea gauzak nahita norberaren ekintzen bidez gertaraztea da”, hau da, eragina izatea ingurumeneko gertaeren bilakaeran. Jendeak asmoak hartzen ditu zer eta nola egin erabakiz, baina gainera burutu ere egiten ditu asmo horiek. Ez hori bakarrik: gogoeta ere egiten du egin duenaz eta saiatzen da hori egokitzen geroko planei begira. Bere ikuspegia azaltzeaz gainera, zenbait lanen kritika ere egiten du Bandurak. Lan horietako bat Nisbett eta Wilsonek (1977) aspaldi argitaratu zutena da, non autoreek frogatu nahi zuten jendeak egiten duena prozesu

³ *Ego depletion* delakoak, “ego-akidura” bezala itzul dezakegunak, honako hau adierazi nahi du: norbere buruaren kontrola eta ahalegin kontziente kontzentratua eskatzen duten buruko beste prozesu batzuk ahitu egin daitekeen energia baten mende daudela; bestela esateko, norbere burua kontrolatzeko gaitasuna baliabide edo energia mugatua dela, agortu daitekeena.

kognitibo inkontzienteez eragina dela. Bandurak hemen egiten dien kritika metodologikoa da, haiek beren subjektuei ekintzak burutu ondoren galdeztzen baitzieten zergatik jokatu zuten jokatu zuten bezala. Bandurak dio, kognizioak ekintzak eragiten dituen ala ez egiaztatzeko, ekintza gauzatu baino lehen aztertu behar direla pentsamenduak, eta ez ondoren; ondoren, subjektuek ez baitute espekulatu besterik egiten. Galderetako batzuek, bestalde, alderakarga omen zuten. Aukerarena Libeten esperimenez baliatuz ezeztatu nahi izatea ere kritikatu du Bandurak. Arazo metodologiko larriak aurkitzen ditu esperimendu horietan. Esate baterako, kontzientzia hartzen den uneari buruz galdeztzen erabiltzen diren hitzak —*desire, urge, want*— adierazten dituzten afektuzko egoerak ez dira trukagarriak, ezta asmo edo intenzioak ere, artikuluetan eta ikerketen aipamenetan esaten den bezala. Nahitakoa omen zen egintza ere testuinguru oso hertsagarrian zegoen txertatua. Egin beharrekoa ez zen inkontzienteki erabakitzen, baizik kontzienteki aginduta zegoen. Kontziente egiteko unea neurtzeko arazoa dago gero. Izan ere, Banduraren arabera, gertaera baten kontzientzia hartzea ez da erabateko esperientzia zehatza, mailaz maila gertatzen den zerbait baizik. Azkenik, baliaduntasun ekologikoaren arazoa aipatzen du Bandurak: ba ote dago elkarrekin konparatzerik epe luzeko plangintza bat, udako oporretarako asmoak adibidez, eta ez zergatik ez zertarako jakin gabe behin eta berriz egiten den mugimendutxo bat? Wegnerri ere kontra egiten dio Bandurak. Wegnerren ikuspegian, inguruneko inputek aktibatzen dituzte ekintzen eragile diren nerbio-mekanismoak. Horrezaz gainera, ordea, modulu bat ere aktibatzen du, interpretazioan espezializatua dagoena baina zerikusirik ez duena ekintza eragiten duen sistemarekin. Bitxi aurkitzen du hori Bandurak, kontuan izanik zein korapilatsuak diren garunean neuronen arteko loturak. Wegnerren modulu interpretatzaileak ekintza aukeramenak eragin duelako ilusioa sortzen du. Zertarako utzi ote zuen energia hori hor eboluzioak? Kausazko eraginik ez omen duen ilusio horrek, ekintza txar bat gauzatzen denean, geroko ekintzetan eragina duen errudun-sentimendua sortzen omen du. Horrek harritu egiten du Bandura, zeren irudipenezkotzat jotzen den kontrol pertsonalaren usteak eragina baitu jokabide etikoan, baina ez bestelako jokabideetan.

Libeten esperimenduak hizpide hartzen dituzte Roediger eta honen ikerketa-lagunek (10. kap.) eta Mele filosofoak (18. kap.) ere; nahiko luze, egia esan, batez ere Melek. Azken horrek egiten dituen gogoetatik honako hau azpimarratuko nuke hemen: Meleren arabera, Libet estudiatzen ari dena aukerarena baldin bada, orduan hori hurbileko erabaki-hartzearen arloan ari da estudiatzen; eremu horretan lortutako emaitzetan oinarrituz, oso bestelako egoeretan garrantzi handiko arazoei buruz hartu diren urruneko erabakiak azaldu nahi izatea: horretaz esan daitekeen gutxiena da erabat ausarta dela. Hori, dena dela, ez du Libet beraren kontra esaten, honek argi eta garbi adierazi baitzuen gorago aipatu dugun 1999ko artikuluan bere esperimenduetako emaitzek ez zutela biderik ematen, ez ezeztatzeko, ez baieztatzeko

aukeramenen.⁴ Wegnerrentzat ere badu esatekorik Melek. Wegnerrek frogatu duena da, dio Melek, jendeak, batzuetan, uste duela berak eginak direla egiaz eta benetan berak egin ez dituen gauzak eta, beste batzuetan, jendeak uste duela ez dituela berak egin egiatan egin dituen gauzak. Wegnerrek magiazkotzat daukan ideia, gogamen kontzienteak ez duela ezeren eragin kausalik hartzen eta bere ekintzetako batzuen kausa oso eta zuzenekoa delako ideia alegia, alde bat utzita ere, badago, Meleren arabera, hipotesi errealistago bat egiterik; honako hau, hain zuzen ere: “Asmo kontzienteek (edo horien korrelatu neuralek) kausazko ekarpena egiten diote jokabideren bati edo besteri” (341. or.). Bada, Melek irmoki esaten du Wegnerren aurkikuntzetatik ezin dela inola ere ondorioztatu hipotesi hori faltsua dela.

Beste galdera bat liburuan egiten dena eta bertan parte hartu dutenetako batzuek nolabait erantzun nahi izan dutena da ea zer eskain diezaiokeen psikologiak aukeramenaren eztabaidari. Hori da, hitzez hitz, Shaun Nichols filosofoaren kapituluaren gaia (2. kap.). Eztabaida horretan hiru alderdi edo dimentsio bereizten ditu berak: deskriptiboa, substantiboa eta preskriptiboa. Dimentsio deskriptiboari dagokionez, helburua da aztertzea nolako ikuspegiak dituzten ez-adituek aukeramenaz eta zein den ikuspegi horien jatorria. Dimentsio substantiboan, jakin nahi da zenbateraino atzematen duten ez-adituen ikuspegiak gauzen egiazko izaera. Eta, azkenik, dimentsio preskriptiboaren helburua da, aukeramenaren existentziari buruz jakin duguna kontuan dugula, nola jokatu beharko genukeen ikustea. Arlo horietan guztietan garrantzi handiko zeregina izango luke psikologiak, zeren, Nicholse arabera, psikologiaren baliabideek asko lagun baitezakete lortzen filosofoek, berek bakarrik, lortu ez duten adostasuna. Nichols berak metodo esperimentalaren erabilzera jo du hainbat galderari erantzun nahian: nolakoa den aukeratzeari buruzko herri-nozioa, zein ote den indeterminista dirudien herri-nozioaren jatorria, edo ea unibertso hipotesiz determinista batean jendea oraindik bere ekintzen erantzule izango litzatekeen. Izango da, beharbada, harrizko denik Nicholsek, filosofoa izanik, esperimentuak egiten dituelako, baina esan beharra dago filosofo hau filosofia esperimentalaren bultzatzaileetako bat dela.

Dweck eta Molden (4. kap.) psikologoak hasten dira esanez psikologiari dagokiola galdera honi erantzutea: Jendeak zer uste du, baduela ala ez duela aukeramenik? Autore horiek estudiatu nahi izan dute norberari buruzko teo-

⁴ Ingelesean, honela dio Libetek (1999: 56): “My conclusion about free will, one genuinely free in the non-determined sense, is then that its existence is at least as good, if not a better, scientific option than is its denial by determinist theory. Given the speculative nature of both determinist and non-determinist theories, why not adopt the view that we do have free will (until some contradictory evidence may appear, if it ever does)”.

⁵ Filosofia esperimentalaren diziplinarteko arlo berri bat da, ezaugarri hau duena: jeneralean psikologiarekin lotzen diren metodoak erabiltzen ditu jeneralean filosofiarekin lotzen diren arazoak aztertzeko (ikus Knobe *et al.* 2011).

riek (giza nolakotasunak finkoak eta aldaezinak direla ala norberaren aha-
leginari esker gara daitezkeela uste izateak) nola eragiten dioten aukerame-
naren auziari eta ikusi dute kontuzko ondorioak dituztela aukeramenaz eta
erantzukizun moralaz dituzten ikuspegi eta esperientzietan. Zera iradokitzen
duten emaitzak ere aurkitu dituzte: aukeramenean uste sendoa izatea lagun-
garri gerta daitezkeela jendearen lorpenerako eta ongizaterako.

Psikologiak aukeramenaren eztabaidari ekarpen baliotsua egin diezaio-
keen beste arlo batek honako galdera honekin du zerikusia: aukeramenik ez
balego, zer gertatuko litzaioke gure sistema moral, legal eta sozialari? Sha-
riff, Schooler eta Vohsek (9. kap.) antolatutako esperimentu batzuek iradoki-
zen dute gauzak ez direla deterministek uste duten bezain baikorrak. Espe-
rimentu horietan, determinismoa egia eta aukerarena irudipen hutsa dela
sinetsarazi zitzairen parte-hartzaileen jokabidea ez zen bestea (esperimen-
tatzailerek aurrez aukeramenaren alde, edo ez alde eta ez kontra, jarri zituzte-
nena) bezain etikoa izan.

Ordu da iruzkin honi bukaera eman diezaiodan. Eta hori egingo dut esa-
nez liburua interesgarria dela, ez bakarrik psikologo eta filosofoentzat, baizik
baita aukeramenaren eztabaidak kezkatzen duen edonorentzat ere. Ikuspegi
orekatua eskaintzen dio irakurleari giza kontzientziaren eta jokabidearen
izaerara hurbiltzeko funtsezkoa den gaiari buruz. Beharbada liburuan hauxe
da bereziki nabarmentzekoa: orain arte filosofoen arteko debatean nagusi
izan diren eztabaidagai neurri batean teorikoei denbora gehiegi eman gabe,
arreta batez ere psikologiaren ekarpena emankorra izan daitekeen gai zeha-
tzago eta onuragarriago batzuetan jartzen duela.

Pello Huizi

ILCLI (UPV/EHU)

Erreferentziak

- BANDURA, A. 2001. "Social cognitive theory: An agentic perspective". *Annual Review of Psychology* 52: 1-26.
- KNOBE, J., W. BUCKWALTER, P. ROBBINS, S. NICHOLS, H. SARKISSIAN eta T. SOMMERS. 2011. "Experimental philosophy". *Annual Review of Psychology* 63: 81-99.
- LIBET, B. 1999. "Do we have free will?". *Journal of Consciousness Studies* 6: 47-57.
- NISBETT, R. eta T. D. WILSON. 1977. "Telling more than we can know: Verbal reports on mental processes". *Psychological Review* 84: 231-259.